

eman ta zabal zazu



ERIZAINZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA

IRRINTZI FERNÁNDEZ AEDO
SENDOA BALLESTEROS PEÑA

2016

ERIZAINZA GRADUA – MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA – LEIOA

ARIKETAK

ARIKETAK

Ondoren proposatzen diren ariketek teorian ikusitako ezagutzak praktikan jartzeko aukera ematen dute.

BIGARREN ARIKETA:

IRITZIAK IRTZI

Ariketa hau egin ahal izateko bildu zaitez bost lagunekin eta proposatu ondorengo ariketa ebazten laguntzea. Izan zaitez zu moderatzailea eta utzi nahi dutena esan dezatela. Apunta ezazu orri batean esaten den guztia. Ariketa hau egiteko BrainStorming teknikari buruz ideia batzuk argi eduki behar dituzu. Birpasa ezazu teknika hau gomendatutako bibliografian.

ARAZOA:

Goizero gizon batek gosaltzen duen bitartean irratiko berriak entzuten ditu. Goiz hartan itsasontzi bat ondoratu dela entzun du. Gizonak gosaria utzi eta uretara botatzen da bere burua.

ZEGAITIK BOTA DU GIZONAK BERE BURUA URETARA?